

## Australopitekoen garaian ere, anitz eta batera

Lucy, *A. afarensis* ezagunaren garai eta eremu bertsuan bizi izan zen beste hominino espezie bat aurkeztu dute: *Australopithecus deyiremeda*. Fosilak —hiru baraila-zati— duela 3,5-3,3 milioi urtekoak direla adierazi dute aurkitzaileek, Clevelandeko Historia Naturalaren Museoko Yohannes Haile-Selassie zuzendutako taldeak, eta, halaber, nabarmendu dute fosilen ezaugarriak espezie garaikideetatik desberdinak direla; haien esanean, aparteko espezieztat jotzeko bezainbestekoak. [Nature aldizkarian argitaratu dute aurkikuntzaren berri.](#)

Australopiteko espezie berriaren fosilak Waronso Mille eremuan aurkitu dituzte, Etiopiako Afar eskualdearen erdialdean, Lucy fosil ezaguna aurkitu zen tokitik ez oso urruti (35 km iparraldera besterik ez dago Hadar). Iker-tzaileen arabera, aurkikuntzak agerian utziko luke gutxienez bi australopiteko espezie bizi izan zirela batera garai berean, eta elkarrengandik oso gertu.



*Australopithecus deyiremeda* espezie deskribatu berriaren fosiletako bat. ARG. YOHANNES HAILE-SELASSIE

Alabaina, ez dira horiek biak Erdi Pleistozenoan Afrika ekialdean bizi ziren hominino bakarrak. 2001ean *Kenyanthropus platyops* espeziea deskribatu zuten Keniako Lomekwi aztarnategian, hura ere duela 3,5-3,3 milioi urtekoa. Hain zuzen, proposatu berri duten espeziaren barailaren ezaugarri batzuk bat datoz *A. afarensis*enarekin, eta beste batzuk *K. Platyops*enakin.


Iker-tzaileek esanean, aurkikuntza horiek guztiek adierazten dute anizta-

sun handia egon zela Erdi Pleistozenoan Afrika populatu zuten homininoen artean —itxura batean, giza eboluzioaren geroagoko aldietan bezainbestekoa—, eta, geografikoki, elkarrengandik oso gertu bizi izan zirela haietako batzuk. Jakingai dago ingurumeneko zer faktorek eragin zuten halako hominino aniztasuna ekialdeko Afrikan, baita espezie haien arteko erlazio genealogikoa zein zen, edo haien eta ondorengo homininoen artekoa. ●

## Materia ilunaren banaketa-mapa bat argitaratu dute

Unibertsuan materia iluna non dagoen pilatuta eta non ez zehazten duen mapa bat eman du ezagutzera Energia Ilunaren Neurketa proiektuak ([Dark Energy Survey](#)). Banaketa-mapa osatzeko, kamera digital superzehatz bat (570 megapixelekoa) baliatu dute ikertzaileek. Izan ere, materia iluna ikusezina bada ere zuzenean, astronomoak gai dira hari antzemateko, haren grabitateak urruneko galaxien argia desbideratzen baitu; lente grabitatorio deritzo fenomeno horri. “Bi bat milioi galaxien irudietan distortsio ñimiñoak neurtu ditugu mapa hau sortzeko”, esan du ikerketaren arduradun Vimu Vikram ikertzaileak.

Iker-tzaileen esanean, jasotako informazioa bat dator materia ilunaz orain arte egindako iragarpenekin. Hipotesi horien arabera, eskala handiko egitura kosmikoen eragile nagusietako bat da materia



Materia ilunaren banaketa-mapa. Koloreek masadentsitatea adierazten dute: gorriz eta horiz, dentsitate handieneko eremuak. Puntu grisak, berriz, galaxien clusterrak dira: zenbat eta puntu handiagoa, orduan eta cluster handiagoa. Proiektuak helburu duen zeru-eremuaren % 3 jaso dute lehenengo mapahonetan. ARG. DARK ENERGY SURVEY.

iluna; bada, mapak erakusten du materia ilunaren dentsitate handiko eremuak letrokatuta daudela galaxiekin eta galaxia-clusterrekin.

Materia ilunaren banaketa-mapak osatuta, energia ilunak zer rol duen neurtzea da proiektuaren azken helburua, eta hortik izena. Unibertsuaren hedakuntza azeleratua esplikatzen proposatu da energia-mota hori, baina erabat ezezaguna da oraindik.

Nazioarteko hainbat erakundek hartzen du parte Energia Ilunaren Neurketa proiektuan, eta Txileko Behatoki Intermarikanoan dago kamera, Cerro Tololon. Mapa, lehen emaitza, [American Physical Society-ren urteko biltzarrean aurkeztu dute](#). Momentuz, 2018ra arte arakatu nahi duten unibertsoko eremuaren % 3 baino ez du jasotzen. ●